

Hasi baino lehen, taldeko guztien izenak gogoratuko ditugu.

Liburuak irekiko ditugu, 4. eta 5. orrialdeetan. Gogoraraziko diegu Bibliak esaten digunaren arabera hasieran iluntasuna besterik ez zegoela. Hurrek, orduan, begiak itxiko dituzte. Katekistak Haurren Biblia irakurriko du, eta esaten duenean «eta argia egin zen», hurrek begiak zabalduko dituzte.

Zer ezberdintasun dago 5. orrialdeko bi marrazkien artean?

Goazen 6. eta 7. orrialdeetara. Haur bakoitzak esan dezala zein den gogokoen duen animalia.

Jarraian, ikusiko dugu zer marraztu duten 8. orrialdean.

Kreazioaren horma-irudia egingo dugu, zati bakoitza moztuz, margotuz eta dagokion lekuan itsatsiz. Gero, kortxoan jarriko dugu.

Orain, kreazioaren orriak eman, margotzeko. Margotzen ari diren bitartean (pertsonek ezik) katekistak jarrai dezala kreazioa irakurtzen. Lehen bost egunak margotuko dituzte, eta beste zatia osorik (heptagonoa).

Gelan utzi, izenak jarrita. Hurrengo batean amaituko duzue.

Bukatzeko, katekistak otoitza irakurriko du, esaldiz esaldi, eta hurrek errepikatu egingo dituzte.



Itxi itzazu begiak indarrez, indar handiz. Dena ilun dago.  
Orain belarriak estale. Dena isilean.

Aspaldi, orain dela asko eta asko, mundua hasi baino lehenago, dena  
ilun zegoen, dena isilik.

Ez zegoen jenderik...  
Ez txoririk.  
Ez animaliarik.

Orduan, Jainkoa mintzatu zen  
-Izan bedi argia! Izan dadila eguna! Izan dadila eguzki distiratsu bat!

Eta izan zen argia.  
Eta argia oso ona zen!

Jainkoak gauerako utzi zuen iluntasuna.  
Eta ilargia eta izarrak Portu zituen ilunpean argi egoteko.

Hura ere ona zen.

Ezan zuen Jainkoak: Izan dadila zerua...Eta lurra... Eta itsasoa. Eta  
horrelaxe gertatu zen.

Baina mundua artean hutsik zegoen, eta isilik.



Horregatik esan zuen Jainkoak  
- Orain landareak behar ditugu.  
Eta hazten hasi ziren lehenbiziko belarrak. Handik gutxira loreak eta  
zuhaitzak izan ziren, baita jateko gauza onak ere.

Baina ez zegoen haietaz nork gozaturik.



Horregatik, berriz hitz egin zuen Jainkoak.  
Eta Jainkoaren hitzarekin batera, itsasoa arrainez eta igeri egiten zuten  
izakiz bete zen. Zerua bete zuten txorien hegalek. Eta mota  
guztietako animaliek bete zuten mundua.  
Eta azkenean, zalaparta iritis zen!  
-Txio! Txio! Txio!- txoriek pozez kantari.  
Animalia bakoitzak bere soinua egin zuen lehen aldiz. Desberdinak  
ziren denak.  
- Ia! Ia! Ia!- zioen astoak arrantzaka.  
Zaunk, zaunk, zaunk! — txakurrak zaunkaka.

Baina Jainkoak, artean, ez zituen eginak gauza guzti-guztiak.

## Goazen kreazioaren marrazkia osatzera



Ebaki eta itsatsi bakoitza bere tokian





Zein ongi egin dituzun mendiak!

Zein ongi egin dituzun bailarak

Zein garbi egin duzun iturrietako ura

Zein ongi dagoen egina itsasoa

Zein ona den landareak sortzen diren lurra!

Zein zoriontsuak diren abereak uretan!

Egin duzun guzti guztia ongi egina dago!

Nik **ESKERRAK** eman nahi dizkizut.

Bedeinkatzen zaitut, dena polita delako eta dena ongi egin duzulako.